

MUXIKA » INAMA

## Udalak Inama auzian duen jarrera kritikatu du EAEko Arartekoak

Arartekoak «enpresak 1994an zuen klandestinitate egoera berean funtzionatzen duela» adierazi du txosten batetan

### DANEL LAUZIRIKA

Ekainaren 20an Iñigo Lamarka Arartekoak Finsa-Inama enpresari buruzko txostena helarazi zion Jabier Gezuraga Muxikako alkateari. Txosten horretan Arartekoak enpresa galiziarrek bere jardura burutzeko beharrezkoak dituen baimenen auzian Udalak izandako jarrera kritikatu du. Horrez gain, Inamak sei hilabeteren buruan bere jardura legeztatzen ez badu, enpresa galiziarra ixteko agindua ematea gomendatu dio Lamarkak Gezuragari.

Txosten hori SOS Muxikak EAEko Arartekoaren bulegora helarazitako kexa baten ondorioa da. SOS Muxikak eta erakundeek utzi dioten dokumentazioaren bitartez «enpresaren egoeraren legaltasuna aztertzen» saiatu da Arartekoak.

Horretarako, Lamarkak eta bere taldeak Inamak bere sorreratik gaur egun arte izan duen bilakaera aztertu du.

### Baimenen afera

Txostenaren arabera, Inamak duen jardura baimen bakarra 1964koa da. 1994an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak enpresari bere jarduren proiektu eguneratua eskatu zion, baina Inamak oraindik ez du proiektu hori aurkeztu.

Txostenaren arabera, «frogen bidez baieztatu ahal izan dugu, prozedura hori amaitzeko dagoela oraindik, eta INAMAK ez duela taula aglomeratuak egiteko eta kogenerazio instalazioa ireki eta funtzionamenduan izateko lizentziarik».

Arartekoaren esanetan, «adierazi dezakegu INAMA enpresak une honetan 1994an zuen klandestinitate egoera berean funtzionatzen jarraitzen duela».

Arartekoak Inamaren jardura aztertzeaz gain, baimenak eman edo ukatzerako orduan erakunde ezberdinek izan duten jokaera aztertu du.

«Udaleko espedientearen izapidetzean bi gertakari antzeman ahal izan dira. Batetik, enpresa jardura indarrean dagoen araudira egokitzearekiko iheskor dabilela. Bestetik, eskumenak dituzten administrazioek jarrera pasiboa eta permisiboa agertu dutela kalteturikoek aurkezturiko salaketan eta industria jardueraren funtzionamendutik baieztaturiko klandestinitate ego- eraren aurrean».

### Sei hilabeteko epea

2004an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko ikuskariak Inamak legeztatu gabeko 22 isurketa gunek dituela atzeman zuen. Txostenaren arabera, enpresa galiziarrek oraindik ez du aurkeztu isurketa gunek legeztatze beharrezkoa den dokumentazioa. Gai horren inguruan, Arartekoak neurriak hartzea gomendatu dio Ingurumen Sailari.

Txostenaren arabera, «Udaleko jardunbideari une oro falta izan zaio koherentzia ikuskapenak egiteko garaian».

Lamarkaren ustez, Muxikako Udalak Finsa.-Inamari bere jardura legeztatze sei hilabeteko epea eman behar lioke. Denbora tarte horretan enpresa galiziarrek bere egoera legeztatuko ez balu, Inama ixteko agindua eman dezan gomendatu dio Arartekoak Jabier Gezuraga alkateari.